

AMA EUSKARA¹



Esan beldurrik gabe
Euskaldunak gera.
IPARRAGUIRRE.

Bizi lekucho chiki batean
berez toki zekenean,
bañan ala ere pozez semeak
bildurik zeduzkanean
bizi zan ama biotz samurra
berien aldamenean;
danak alkarri lagun egiñaz
sayaturikan lanean,
irichi ziran larreak baratz
biurtzera azkenean.

Jaungoiko onak ikusirikan
jende aren ontasuna,
beti oparo ematen zien
indarra ta osasuna;
lanaren bidez berenduzuten
lur zallaren eztasuna,
urrutietan ere izan da
geroz askotan entzuna,
nola mirariz artu oi zuten
ango ugaritasuna.

Ainbeste zuten lur zikoitz ura

(1) Composición señalada con *mención honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892.

landu eta ongarritu,
non eman zuben jankayarekiñ
danak oi ziran arritu;
bañan jatunak ere geiegi
nola ziran ugaritu,
ta leku chiki edertu ura
eziñ zeikean aunditu,
norabaitera juan bearrean
asko ziraden arkitu.

Lur chiki artan guzien diña
gauza nola etzegoan,
seme batzuek chit urrutira
bear izan zuten joan;
bañan, ai! nola arkitzen ziran
andik aldegindakoan!
itz bat bakarra zebillen aien
biotzean ta aboan:
«ama» gañoa beste gauzarik
etzeramaten gogoan.

Atzeerrian noizean beiñka
beren aldeko berriak
artzen zituzten seme on aiek,
bañan chit negargarriak;
alako batez bat alchatu zan
malkoz bustirik begiak,
esanaz:—«ama» galdu ez dezan
norbaiten gaiztakeriak,
ekairazute besarkara bat;
beragana joan nai diat.

Batzuek penaz utzi ta pozez
besteen aldamenera
abiatuzan seme leial au
bide luzean aurrera;
noizbait, azkenik, inguratu zan
bera jaio zan lurrera,
egualdi otzak ziran denboran,

Egoarriak aldera:
ai! zer barrendik egin zion bati
bere amaren galdeera!

—Adiskidea: ¿bai aldakizu
gure ama ona non dan?
—Bai ala fede, eta ¿nola ez
gaur gaubean bere onran
festa degu ta? begira zazu
apainduta nola noan;
etziñan bada galdez asiko
aldi egokiagoan:
atoz nerekiñ ikusitzera
zeñen alaia dagoan.

Anai leyal ta seme on ura
bestien ondora pozik
joanzan bilguma eder batera
eziñ geldituz biotzik;
nola etzuben ikusitzea
espero alako gauzik,
«ama» deadar egiñ nai zuben
ta eziñ somatu itzik,
barren barrendik Jaungoikoari
esker ematea baizik.

Ama onratzen ikusirikan
bere anai ta lagunak,
au esan zuben urrutitikan
etorri zan euskaldunak:
—Euskaragatik albiste charrak
guri eman dizkigunak,
ez ditu ondo ezagututzen
gure itz ezti legunak;
alkar maiteak izan gaitezen
izen santu au degunak.

PEDRO M.^a OTAÑO.

